Defendemos EUSKADI Zaindu

eaj pnv

2026KO HAUTESKUNDE OROKORRAK
ELECCIONES GENERALES 2026

Maribel Vaqueroren hitzaldia
Eibar. 2026.11.21

Alderdikideok, lagunok! Aupa Eibar! Zelako plazerra kanpainako ekuadorra zuekin guztiokin partekatzea. Astebete falta da hauteskunde egunerako eta indartsu gaude. Gogoz gaude, pozik, lanean… Denok elkarrekin, alde batetik bestera, gelditu gabe! Gure Etxea defendatzen, Euskal Etxea zaintzen! Astebete geratzen zaigu eta gogoz gaude. Euzko Alderdi Jeltzalea gara! Lanerako prest eta gogoz!

Eibar ejemplo de ciudad trabajadora. Industrial. Que sabe lo que significa el esfuerzo, la solidaridad y la capacidad de superación, de resurgir, de salir adelante. Aquí, la industria no es una actividad económica. Es el ADN de Eibar. Durante generaciones, miles de hombres y mujeres han trabajado para sacar adelante sus familias y construir un futuro mejor aquí.

Para eso mismo vamos a Madrid. Para seguir trabajando por nuestro futuro, por el futuro de Euskadi. Para conseguir más autogobierno, para que Euskadi, vascas y vascos, gobernemos nuestra propia Casa. Porque cuando Euskadi gestiona, Euskadi funciona.

Euskal Taldea Madrilen eta Euskal Erakundeak elkarlanean aritu gara industriaren etorkizuna bermatzeko. Talgo, Ayesa, UVESCO – BM… Ondo baino hobeto ezagutzen ditudan enpresak dira... Duela bi urte, ixteko zorian edo Euskaditik kanpo zeuden… Egoera hori ezagutu bezain pronto, lanean hasi ginen, elkarrekin… Euzko Alderdi Jeltzalearen indar guztia jarrita, han eta hemen, Madrilen eta Euskadin… Helburua lortu dugu: enpresa hauen jarduera eta enplegua salbatzea!

Gaur, enpresa hauek aberastasuna eta lana sortzen ari dira. Ez da lan erraza izan. Ez da batere erraza izan. Baina lortu dugu, gure ereduari esker lortu dugu: lana eta elkarlana, han eta hemen, denok bat eginda. Hau da gure eredua: errotzea, industria eta enplegua. Eta hau guztia… PNVrik gabe… ez da egiten. Hau dena… PNV ez badago Madrilen eta Euskadin, ez da egiten.

En Eibar sabéis, sabemos, que garantizar una industria competitiva es imprescindible para generar puestos de trabajo con buenos salarios. Defender la industria no es solo evitar que las empresas se marchen. Es conseguir que puedan crecer, invertir, innovar y crear más empleo. Esta semana hemos conseguido que se apruebe un incremento del 50 % de la potencia eléctrica para la industria vasca. Más capacidad para que Euskadi siga siendo un país industrial, competitivo y con futuro.

¿Y sabéis por qué se ha aprobado? Porque hemos hecho nuestro trabajo: negociar, exigir y acordar. Modelo PNV: Hemos conseguido traer de Madrid lo que Euskadi necesita. Esto sin el PNV no se hace. ¡No se hace! Sin el PNV no se hace.

Defendemos EUSKADI Zaindu

eaj pnv

2026KO HAUTESKUNDE OROKORRAK
ELECCIONES GENERALES 2026

Euskal industria eta enplegua zaintzea eta defendatzea gure zeregina da. Eta, nola ez, gure gurasoen eta aitona-amonen ahalegina aitortzea. Haien lana, haien ekarpena, bizitza osoan egindako ahalegina. Horregatik, pentsiodunek errespetua, segurtasuna eta duintasun osoa merezi dute.

Data bat gogoratuko dut: 2018garren urteko apirilaren 25a. Zortzi urte luze pasa dira. Egun hartan, Eusko Alderdi Jeltzaleak… Rajoyren Gobernua pentsioak eguneratzea behartu zuen. Behartu genuen. Ordurarte, krisi ekonomikoa medio, ez ziren eguneratzen. Ordutik hona, urtez urte, pentsioak eguneratzen dira.

Hau ez zen berez gertatu: Euzko Alderdi Jeltzalearen konpromiso politikoaren eta exijentziaren emaitza izan zen. Horrela jarraituko dugu: pentsiodunen erosteko ahalmena defendatzen, gaurko eta biharko pentsioak bermatzen. Hau da Etxea zaintzea. Eta hau guztia PNV gabe, Madrilen eta Euskadin, ez da egiten. PNV ez badago, ez da egiten. Gu gabe ez da egiten.

Revalorización de las pensiones. PNV. Prevalencia de los convenios colectivos vascos. PNV. Un logro de esta legislatura, que no ha caído del cielo. Un logro que no fue fácil porque nos topamos con el Ministerio de Yolanda Díaz, una centralista de manual disfrazada de plurinacional. Que no nos engañen. Lo hemos conseguido con mucho trabajo en las Comisiones, en los Plenos y en los Ministerios.

Lo hemos conseguido con un Grupo Vasco en Madrid que siente vuestro empuje y vuestro apoyo: Nos planteáis vuestras preocupaciones, que son las nuestras, nos pedís que peleemos para conseguir lo que necesitáis, y mos dais ánimo y coraje. Eskerrik asko!

Puedo seguir. Porque lo conseguido no termina aquí: dependencia, protección a las familias, legislación contra la multirreincidencia y las armas blancas… Recursos, derechos y herramientas para que Euskadi pueda responder mejor a las prioridades de nuestro País, a las necesidades de los y las vascas. ¡Todo esto se ha conseguido por el PNV! Porque sin el PNV, ¡no se hace! Sin el PNV no se hace.

Hauteskunde hauetan gardentasun osoz aurkeztu gara. Gure eginkizunaren emaitzak azaltzen ditugu eta programa sendo batekin gatoz. Euzko Alderdi Jeltzalearen konpromisoa da eta aseguru poliza bat euskal gizartearentzako. Aseguru Poliza zehatza eta gardena. Letra txikirik gabe. Gu ez goaz Madrilera beste inoren aginduak betetzera. Gu ez goaz bertako istiluak txalotu eta men egitera. Gu ez goaz han GRATIS ET AMORE denari BAI esatera; eta hemen, berriz, kontrako pankarta guztiak astintzera. Gu beti etxerako, haiek beti etxe kalte.

Gu beti kamiseta berdea jantzita: Herriaren interesak defendatzen, Autogobernua indartzen eta hemen bizi eta lan egiten dugunon etorkizuna eraikitzen. Euskadiren alde, han eta hemen. Euskal etxea, eraikitzen. Gu beti etxerako, haiek beti etxe kalte. Gu beti etxerako - Euzko Alderdi Jeltzalea gara! Euskal Etxea zaintzen eta defendatzen!

Termino. Tenemos las ideas claras. Sabemos lo que necesita Euskadi. Sabemos que defenderlo exige trabajar, negociar y no renunciar. Nuestro compromiso no cambia dependiendo de quién gobierne en Madrid. Gobierne quien gobierne, nuestra brújula siempre apunta a Euskadi. No vamos a Madrid a hacer seguidismo. No vamos a Madrid a decir sí a todo. No vamos a confrontar por confrontar. Vamos a defender lo que Euskadi necesita. Con responsabilidad, firmeza y capacidad para alcanzar acuerdos.

Alderdikideok, lagunok. Azaroaren 29an Euskadi NORK ordezkatu eta defendatuko duen erabakitzen dugu. Eusko Alderdi Jeltzaleari emandako botoa balio handia du: autogobernua defendatzeko, gure eskubideak errespetatzeko, Euskadiren etorkizuna eraikitzeko, eta Euskal Etxea zaintzeko.

Ezin dugu agindu arazo guztiak desagertuko direnik, baina arazo horiei aurre egiteko konpromisoa hartzen dugu. Arduraz. Lana eginez. Akordioak lortzeko gaitasunarekin. Beti pertsonak erdigunean ditugula. Azaroaren 29an erabaki garrantzitsua dugu. Beraz: pozik, alai, konpromisoz, errespetuz eta ozen: Euskadiren alde bozkatu, bozkatu Euskadi. bozkatu Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euzkadi askatuta!

Defendemos
EUSKADI
Zaindu

eaj pnv

2026KO HAUTESKUNDE OROKORRAK
ELECCIONES GENERALES 2026